


BARANDIARAN ETA LEKUONA (GASTEIZ'EN)



Euskal kulturaren gizon ospetsu bi aukeratzekotan geienen autarkiak Barandiaran eta Lekuona'rentzat izango ziran, baiña Gasteizko Seminarioak ez eukan olako auteskunderik egin bearrik.

Barandiaran eta Lekuona izan ziran Abadegaien etxe aretan billaketarako lenengo oiñarri sendoak ipiñi ebezenak eta oiñarri orrekin gainean jaso da gaurko Ikastetxe Nagusiaren saila berezi au.

Ordua zan gizon ospetsu onei esker ona agertzeko eta aundikiro agertu jake oraingoan.

Ez dira gizon biak mailla ta saila baten langille izanak, naiz ta alkarren barria jakinda eta sarritan bide biak alkartzen dirala jokatu: Barandiaran'ek giza-iztian, antropologian egin dau lan, Lekuona'k ostera izkuntzarloan.

Biak dira abadeak.

Omenaldiaren aurretik, ikastaro eder bat eratu dabe Gasteiz'tarrak, zezeillaren 13'tik 15'era eta azkenengo egun onetan omenaldi egokia.

IKASTAROA

Iru egunekoa izan da ikastaroa eta iru egun orrekin barruan, berbaldiak eta jente-

aurreko alkar-izketak kontuan dirala, 12 ekinaldi.

Gai guztiak zabal-zabalak izan dira. Akatsik aurkitzekotan, auxe izan leiteke bat: Gai zabalegiak denpora laburrerako. Izlariak beti ariñeketan ekin bearra izaten eben. Baiña, beste alde batetik, Euskalerrian Eleizeak izan dauan jokabidea osoan agertzeko egokiak izan ziran.

Izlari gaztiak jakintsuak eta euren gai orretan berezituak izan zira. Gogoratu dagizan abizen batzuk: Sorazu, Gorritxo, Telletxea, Mañarikua, Portilla, Zabaltza, Aldai, Etxebarria, Apellaniz, Ojanguren... Eta Gudaldia aztertu zanean, aita Olaso'ren itzaldi labor eta beroa.

Berbaldirik geienetan 200 lagun inguru izaten ziran.

OMENALDIA

Bariku arratsaldean, seiretarako, seminario'ko ekintza-areto ederra bete-beterik egotan: aurrean eleiz-gizonak eta ostean, korupean, erri-agintarien jarlekuak.

Gotzain oneik ikusi genduzan aurrean: Compostela'koa, Bilbo'ko biak, Donosti'koa, Iruña'koa, Los Rios'ko Biktor Garaigordobil Otxandio'tarra eta Gasteiz'koa. Onein inguruan omenduen irakaskide izandako talde aundia.

Taize'ko Aleluia abestu eben teoloji-ikasle diran abadeak eta Arzalluz ikasleak egin eban aurkezpena. Gero Gasteiz'ko Larrauri Gotzainak omendu bien bizitza ta lanak agertu zituan.

Erroma'ko baimena euskeraz eta erderaz irakurri-ondoren, irakasle-kapelak ipiñi eutseezan omenduai eta oneik euren irakastaldia emon eben: Lekuona'ko euskerearen bokatiboari buruz gauza jakingarriak esan zituan, lenengo euskeraz eta gero, tamalez berak iñoan lez, erderaz. Barandiaran'ek Gizabidea ta kristautasuna artu eban gai lez eta izkuntza bietan berba egin eban.

GORATZARREA

Erdi-aroaren asierako goratzarre gogoangarria abestu genduan koruak eta jentek txandaka. Ikmaro'ren goratzarrea dauka izena, seigarren gizaldikoa da, geroago Ikmaro'k osotua, eta antxiñatik abesten zan Gasteiz'ko Ikastegi onetan.

Amaitzeko, AGUR JAUNAK eta guztiok poztasunez bakoitza bere bizilekura.

OLAZAR'tar Martin'ek